

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 151100 LURRALDE INFORMAZIOA
ETA HIRIGINTZA
EKINTZAREN SUSTAPENA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO

Programa: 151100 INFORMACIÓN
TERRITORIAL Y FOMENTO
ACCIÓN URBANÍSTICA

PROGRAMAREN MEMORIA

MEMORIA DEL PROGRAMA

I. MEMORIA

"Lurralde Informazioa eta Hirigintza Ekintza" programaren helburu orokorra da Arabako lurralde historikoko lurralde antolamendua, hirigintza ekintza eta lurralde informazioa sustatzea, eta, eraginkortasun handiagoa lortzeko, oinarritzko bi azpiprogramatan egituratzen da:

1. Lurralde eta kartografia informazioa.

Azpiprograma honek lurralde antolaketaren esparruko ildo estrategikoak lantzeko ezinbestekoa den agiri euskarria osatzen duten elementuak biltzen ditu. Horretarako, etengabe eguneratuta eduki behar dira Arabako base kartografikoak, horien zabaltzea sustatzeaz gainera.

Azpiprograma honen kontura, Arabako Lurralde Historikoaren kartografiako hainbat lan egiten dira aldian-aldian. Garrantzitsuenetakoak lurralde osoko 1:5000 eskalako kartografiaren eta hainbat udalerritako herriguneen 1:500 eskalako kartografiaren eguneratze lanak izan dira.

1:500 eskalako kartografia eguneratzen eta hobetzen jarraitu da eta datu base geografiko (BTU500) bihurtzen. Zehazki, Aramaio eta Berantevilla udalerrietako herriguneen kartografia eguneratzeko lanak hasi dira. Proiektua 2025ean hasi da eta 2026an bukatuko da.

Gainera, 1:500 eskalako hiri kartografia xehatu hori egiteko proiektuen barruan, eta hura egiteko egindako hegaldi fotogrametrikotik abiatuta, herrigune bakoitzaren bereizmen handiko hiri ortoirudiak lortu dira.

I. MEMORIA

El objetivo general del programa "Información Territorial y Fomento Acción Urbanística" es el fomento de la ordenación del territorio y la acción urbanística e información territorial del territorio histórico de Álava, articulándose para mayor operatividad, en dos subprogramas básicos de actuación:

1. Información Territorial y Cartográfica.

Este subprograma recoge los elementos que representan el soporte documental imprescindible para la elaboración de las líneas estratégicas en el marco de la ordenación territorial. Para ello han de mantenerse actualizadas de manera continua las bases cartográficas de Álava además de fomentarse su difusión.

Con cargo a este subprograma se realizan periódicamente diversos trabajos de cartografía del Territorio Histórico de Álava. Entre los más importantes, cabe señalar la actualización de la cartografía de todo el territorio a escala 1:5000 y la cartografía a escala 1:500 de los núcleos urbanos pertenecientes a varios municipios.

Se ha continuado con la tarea de actualización y mejora de la cartografía a escala 1:500 y su conversión a una base de datos geográfica (BTU500). Concretamente se han iniciado los trabajos para actualizar la cartografía de los núcleos urbanos pertenecientes a los municipios de Aramaio y Berantevilla. El proyecto se ha iniciado en 2025 y finalizará en el año 2026.

Añadir que dentro de los proyectos de elaboración de esta cartografía urbana de detalle y partiendo del vuelo fotogramétrico realizado expresamente para su elaboración, se obtienen las correspondientes ortoimágenes urbanas de gran resolución de cada uno de los núcleos.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 151100 LURRALDE INFORMAZIOA
ETA HIRIGINTZA
EKINTZAREN SUSTAPENA

Kartografiaren esparruan, halaber, nabarmendu behar da, Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuarekin batera, aurrera jarraitu dela hiriguneen 1:500 eskalako kartografia bakar, homogeen eta eguneratua lortzeko koordinazio eta lankidetzaren proiektuarekin. Horretarako, jardura protokolo bati jarraitu zaio, zeina bi zerbitzuen artean ezarri baitzen, katastroan alta ematen zaien eraikuntza berrien balidazio geometrikoa egiteko eta 1:500 eskalako kartografia ofizialean sartzeko. 2025ean, guztira 87 jasotze topografiko sartu dira.

Aldi berean, eta lurraldeko oinarritzko kartografiaren etengabeko eguneratzea eta hobetzea bultzatzen jarraitzeko, 2025ean hasi da eta 2026an amaituko da 1:5000 eskalako kartografia eguneratu eta hobetzeko proiektua eta hura lurralde historiko guztiko BTA5000 datu base geografikora bihurtzeko lanak.

Gainera, 2025ean, irudi jarraitu bat egin eta argitaratu da 1970eko 1: 5.000 eskalako kartografiaren lehen edizioan oinarrituta. Produktu berritzaile hori interes handiko dokumentu kartografikoa da, sinbologiak eta biltzen diren testuek ematen duten balio erantsiagatik.

Lurralde mugapenen arloan, jurisdikzio mugak zehazteko laguntza tekniko eta juridikoa eman zaie udalerri eta kontzejuei ekitaldi honetan ere. Muga lerroak eguneratu eta hobetzearekin lotutako zenbait espediente izapidetu dira.

Zehazki, udal mugarteak mugatzeko edo aitortzeko espediente hauek izapidetu dira: Ludio-Okondo, Ludio-Aiara, Urkabustaiz-Zuia, Artziniega-Aiara, Aiara-Okondo, Amurrio-Zuia, Amurrio-Urkabustaiz, Kuartango-Zuia.

Kontzejuen muga kasuan, Lantarón, Berantevilla eta Zuia udalerrien lerroetarako 4/2011 Foru Arauaren laugarren xedapena izapidetu da.

Administrazio barrutiei dagokienez, muga lerroekin lotutako dokumentazio grafikoaren eta dokumentalaren etengabeko mantentze lanekin jarraitu

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO

Programa: 151100 INFORMACIÓN
TERRITORIAL Y FOMENTO
ACCIÓN URBANÍSTICA

También en el ámbito de la cartografía cabe destacar que, junto con el Servicio de Tributos Locales y Catastro, se ha continuado con el proyecto de coordinación y colaboración para la obtención de una cartografía única, homogénea y actualizada de las zonas urbanas a escala 1:500. Para ello se sigue un protocolo de actuación establecido entre ambos Servicios para la validación geométrica de las nuevas construcciones que se dan de alta en Catastro y su inclusión en la cartografía oficial escala 1:500. En el año 2025 se han incorporado un total de 87 levantamientos topográficos.

Paralelamente y con el objetivo de seguir impulsando la actualización y mejora continua de la cartografía base del territorio, en 2025 se ha iniciado y se finalizará en 2026, el proyecto de actualización y mejora de la cartografía a escala 1:5000 y su conversión a una base de datos geográfica (BTA5000) de todo el Territorio Histórico.

Además, en 2025 se ha elaborado y publicado una imagen continua a partir de la primera edición de la cartografía a escala 1:5.000 del año 1970. Este novedoso producto constituye un documento cartográfico de gran interés por el valor añadido que aporta la simbología y textos que se recogen.

En el ámbito de las demarcaciones territoriales, se ha continuado con la labor de apoyo a municipios y concejos mediante la asistencia técnica y jurídica en la determinación de sus límites jurisdiccionales. Se han tramitado varios expedientes relacionados con la actualización y mejora de las líneas límite.

Concretamente se han tramitado los siguientes expedientes de deslinde o reconocimiento de términos municipales: Ludio-Okondo, Ludio-Ayala, Urkabustaiz-Zuia, Artziniega-Ayala, Ayala-Okondo, Amurrio-Zuia, Amurrio-Urkabustaiz, Kuartango-Zuia.

En el caso de los límites concejiles, se ha tramitado la disposición cuarta de la NF 4/2011 para las líneas de los municipios de Lantarón, Berantevilla y Zuia.

Relacionado con las divisiones administrativas, se ha continuado con el mantenimiento continuo de la documentación gráfica y documental relacionada con

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 151100 LURRALDE INFORMAZIOA
ETA HIRIGINTZA
EKINTZAREN SUSTAPENA

da, RDTA aplikazioaren bidez.

Bestalde, artxibo historiko kartografikoaren eta fotogrametrikoaren mantentze eta hobetze lanen esparruan, Aldundiaren artxiboan formatu analogikoan gordetako kartografia eskaneatzen eta katalogatzen jarraitu da. Proiektu horren ondorioz, produktu horien kontserbazioa hobetzen da, haietarako sarbidea errazteaz gain. Inbentariatutako eta eskaneatutako 2.550 dokumentu kartografikoak herritarren eskura jarri dira web bidez, GeoTekaren bitartez. Esan behar da gero eta gehiago eskatu eta baloratzen dela mota horretako informazio geografikoa, hainbat sektoretan aplikatu daitekeen informazio oso erabilgarria ematen baitu lurraldea aztertzeko.

Halaber, Arabako erpin geodesikoen sarearen mantentze lanak ere egin dira. Eguraldiaren kariaz eta, batzuetan, gizakiaren egintzaz ere etengabeko narriadura jasaten duten egiturak dira erpin geodesikoak. Horregatik, haiek mantentzeko eta pintatzeko kanpaina gauzatzen jarraitu da.

Gainera, hedapen didaktikoaren esparruan, eta erpin geodesikoen sare horri balioa emateko asmoz, hamabostean behin sare sozialetan erpin geodesikoen ibilbideei buruzko edukien hedapen kanpaina bat egiten jarraitu da, 2023an argitaratutako gidako 15 ibilbideak ezagutarazteko.

Bereziki aipagarriak izan dira GeoAraba geoatariaren mantentze eta hobetze lanak. Geoatari korporatiboa da, eta Arabako Foru Aldundiak sortutako informazio geografiko guztia plataforma bakar batean biltzea ahalbidetzen du. Diseinua foru sailen eta, oro har, herritarren beharrei zerbitzu emateko moduan planteatu da.

Proiektu bizia da, etengabe eboluzionatzen ari dena; beraz, 2025ean, eta AKSArekin eta aldundiko beste sail batzuekin koordinatuta, plataformaren hobekuntza teknologikoa lortzeko eta sektore anitzeko informazio geografiko berria koordinatu, homogeneizatu eta argitaratzeko lanean jarraitu da.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO

Programa: 151100 INFORMACIÓN
TERRITORIAL Y FOMENTO
ACCIÓN URBANÍSTICA

las líneas límite a través de la aplicación RDTA.

Por otra parte, en el ámbito del mantenimiento y mejora del archivo histórico cartográfico y fotogramétrico, se ha continuado con el escaneo y catalogación de cartografía conservada en formato analógico en el archivo de la Diputación. Fruto de este proyecto se consigue una mejora en la conservación de dichos productos, además de facilitar el acceso a los mismos. Los 2.550 documentos cartográficos inventariados y escaneados han sido puestos a disposición de la ciudadanía vía web a través de la GeoTeka. Señalar que este tipo de información geográfica es cada vez más demandada y valorada, ya que aporta información muy útil en el análisis del territorio con aplicación en diferentes sectores.

Asimismo, se han llevado a cabo tareas de mantenimiento de la red de vértices geodésicos de Álava. Siendo los vértices geodésicos una estructura que sufre un deterioro continuo por causas meteorológicas y en algunos casos por la acción del hombre, se ha continuado con la campaña de mantenimiento y pintado de los mismos.

Además, en el marco de la difusión didáctica y con el objetivo de poner en valor esta red de vértices geodésicos, se ha continuado con la campaña de difusión quincenal en redes sociales de contenidos relacionados con las rutas de los vértices geodésicos, dando a conocer las 15 rutas de la guía publicada en el año 2023.

Especialmente reseñable, ha sido el mantenimiento y mejora del geoportal GeoAraba. Se trata de un geoportal corporativo, que permite aglutinar en una única plataforma toda la información geográfica generada por la Diputación Foral de Álava. Su diseño se plantea de modo que de servicio tanto a las necesidades de los diferentes Departamentos Forales, como a la ciudadanía en general.

Se trata de un proyecto vivo que va evolucionando continuamente, por lo que, en 2025, y en coordinación con CCASA y otros Departamentos Forales, se ha continuado trabajando para la mejora tecnológica de la plataforma y para la coordinación, homogeneización y publicación de nueva información geográfica multisectorial.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 151100 LURRALDE INFORMAZIOA
ETA HIRIGINTZA
EKINTZAREN SUSTAPENA

2025ean egindako lanen artean, aipatzekoa da bisorean hainbat informazio geruza argitaratu direla, Aldundiko zerbitzuek egindako edukietatik abiatuta. Datu berriak argitaratzea eta argitaratutako informazio geografikoa etengabe mantentzea funtsezko lana da proiektu honetan.

2025ean utilitate eta hobekuntza berrien garapena nabarmentzen da, besteak beste, GeoAraba bisorea administrazio prozeduren izapideetan integratzea eta informazio geografikoko kontsulten modulu bat garatzea.

Era berean, GeoTekan (milaka dokumentu kartografiko eta fotografiko erraz kontsultatzeko eta deskargatzeko aukera ematen duen bistaratzailea) eduki berriak sartzen jarraitu da.

Gainera, GeoArabaren kontsumoari buruzko datu estatistikoak biltzen eta aztertzen jarraitu da. Datuen azterketa horrek oso informazio baliagarria ematen du proiektuaren bilakaerarako eta hobekuntzarako.

GeoAraba proiektuari lotuta, zabalkunde kanpaina batekin jarraitu da, plataforma bera eta informazio geografikoa erabiltzaile desberdinei eta askotariko erabileretarako hurbiltzeko. Egindako lanen artean, nabarmentzekoa da sare sozialetan hainbat eduki argotarati direla (Facebook, Instagram, X).

Era berean, GeoAraba proiektua lurraldeko ikastetxeetan zabaltzeko kanpainarekin jarraitu da, eta kanpaina horretan prestakuntza honen edukia berritu da: "Ezagutu Geoaraba" ikastetxeetan. Hainbat ikastetxetako 25 ikasgelatan eman da bi hizkuntzetan, eta guztira 661 ikasle izan dira.

GeoAraba plataformari buruzko hainbat prestakuntza ikastaro ere antolatu dira AFAko langileentzat eta Miñoientzat. Guztira 7 saio eman dira 73 partaiderentzat.

Herritarrei zuzendutako hedapenaren esparruan, erakusketa ibiltari bat egin da, izenburu honekin:

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO

Programa: 151100 INFORMACIÓN
TERRITORIAL Y FOMENTO
ACCIÓN URBANÍSTICA

Entre las tareas acometidas en 2025, cabe citar la publicación en el visor de múltiples capas de información a partir de contenidos elaborados por los diferentes Servicios de la Diputación. La publicación de nuevos datos y el mantenimiento continuo de la información geográfica publicada, constituye una labor fundamental de este proyecto.

Destaca en 2025 el desarrollo de nuevas utilidades y mejoras, entre otras la integración del visor GeoAraba en la tramitación de procedimientos administrativos y el desarrollo de un módulo de consultas de información geográfica.

Asimismo se ha continuado incorporando nuevos contenidos en la GeoTeka, el visualizador que permite consultar y descargar de un modo muy sencillo, miles de documentos cartográficos y fotográficos.

Además, se ha seguido trabajando en la recopilación y análisis de los datos estadísticos del consumo de GeoAraba. Este análisis de datos aporta información muy valiosa para la evolución y mejora del proyecto.

Unido al proyecto GeoAraba, se ha continuado con una campaña de difusión que pretende acercar tanto la propia plataforma, como el concepto de utilizar la información geográfica a diferentes usuarios y con usos muy diversos. Entre las tareas acometidas destaca la publicación de contenidos en redes sociales (Facebook, Instagram, X).

Así mismo, se ha continuado con la campaña de divulgación del proyecto GeoAraba en los centros educativos del territorio, habiéndose renovado en esta campaña el contenido de la formación: "Descubriendo Geoaraba" en centros escolares. Se ha impartido en 25 aulas de diversos centros escolares, llegando a un total de 661 alumnos/as en sesiones en los dos idiomas

También se han organizado varios cursos de formación sobre la plataforma GeoAraba, dirigidos a personal de la DFA y al cuerpo de Miñones. Se han impartido un total de 7 sesiones para 73 asistentes.

En el ámbito de la difusión orientada a la ciudadanía, se ha llevado a cabo una exposición itinerante titulada:

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 151100 LURRALDE INFORMAZIOA
ETA HIRIGINTZA
EKINTZAREN SUSTAPENA

"Geoteka: Arabaren denboran zeharreko bidaia kartografia eta irudi historikoen bidez".

Gainera, dibulgazio jardunaldi bat egin da Hirigintzaren Eguna ospatzeko. Jardunaldi hori azaroaren 8an egin zen, Probintzia plazan, eta haur tailerrak, eskola jolasak, antzerkia eta balleta izan zituen. Haurrentzako marazki, kontakizun eta bideo lehiaketa bat ere egin zen. Kategoria horietan 317 pertsonak hartu zuten parte (247 marrazkikoan, 65 kontakizunekoan eta 5 bideoan).

Bestalde, gardentasunaren mesedetan eta Arabako Foru Aldundiaren web orriak bultzatzen duen proiektu horizontalarekin koordinatuta, eduki berriak argitaratzen jarraitu da Hirigintzako web-orrian. Webgune horren bidez, herritarrek Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzaren Zerbitzuak sortutako informazio ugari eskura dezakete.

Azkenik, adierazi behar da ezen, nahiz eta lurralde eta hirigintza informazio gehiena web orriaren bidez eta doanik jarri, beharrezkoa dela arreta eta salmenta gune bat edukitzea, bertan herritarrek kontsultatu eta erosi ahal izan dezaten bere ezaugarri bereziengatik araba.eus webgunean eskuragarri ez dagoen dokumentazio historikoa.

2.- Hirigintza ekintza sustatzea.

Arreta berezia ematen zaio hiri antolamendurako plan orokorrak eta haien ingurumen ebaluazio estrategikoak idazteko udalak diruz laguntzeko politikari. Guztira, hogeita bi dirulaguntza eman zaizkie udalerriei, haien hirigintza plan orokorren idazketa teknikoa finantzatzeko. Hain zuzen, honako udalerrri hauek izan dira onuradunak: Arraia-Maeztu, Zambrana, Mañueta, Zuia, Artziniega, Iruraiz-Gauna, Peñacerrada-Urizaharra, Navaridas, Kanpezu, Burgelu eta Legutio.

Azpiprograma horren kontura, Arabako Lurralde

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO

Programa: 151100 INFORMACIÓN
TERRITORIAL Y FOMENTO
ACCIÓN URBANÍSTICA

"Geoteka: un viaje en el tiempo por Álava a través de cartografía e imágenes históricas".

Además se ha celebrado una jornada divulgativa para celebrar el Día del Urbanismo. Dicha jornada se desarrolló el 8 de noviembre en la Plaza de la Provincia y contó con talleres infantiles, juegos escolares, teatro y ballet. También se ha llevado a cabo un concurso infantil de dibujo, relato y video. Se ha contado con 317 participaciones en las distintas categorías (247 dibujos, 65 relatos y 5 videos).

Por otra parte, en aras de la transparencia y coordinado con el proyecto horizontal que impulsa la página web de la Diputación Foral de Álava, se ha continuado con la publicación de nuevos contenidos en la página web de Urbanismo. Esta página sirve de acceso para la ciudadanía a multitud de información generada por el Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por último, indicar que además de disposición de la ciudadanía a través de la página web y de un modo gratuito la mayoría de la información territorial y urbanística que se genera; se hace necesario el mantenimiento del punto de atención y venta al público donde la ciudadanía puede consultar y comprar aquella documentación histórica, que por sus características especiales, no se encuentra disponible a través de la página web araba.eus.

2.- Fomento de la Acción Urbanística.

Se presta especial atención a la política de subvenciones a los ayuntamientos para la redacción de los instrumentos de los Planes Generales de Ordenación Urbana y sus Evaluaciones Ambientales Estratégicas. En total se han concedido veintidós subvenciones a los municipios para la financiación de la redacción técnica de los planes generales urbanísticos de dichos municipios, siendo en concreto para los Ayuntamientos de Arraia-Maeztu, Zambrana, Baños de Ebro, Zuia, Artziniega, Iruraiz-Gauna, Peñacerrada-Urizaharra, Navaridas, Campezo, Elburgo y Legutio.

Con cargo a este subprograma se engloban diferentes

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 151100 LURRALDE INFORMAZIOA
ETA HIRIGINTZA
EKINTZAREN SUSTAPENA

Historikoan hirigintza ekintza sustatzeko eta zabaltzeko hainbat ekintza biltzen dira.

Aldundiak 2025ean onetsitako plangintzari dagokionez, plangintza orokor eta xehaturako izapidetu diren 37 foru ebazpenak aipatu behar dira. Era berean, 30 erregistro egin dira AFaren Plangintzako Erregistro Orokorrean.

2025ean, hogeita hamabi (32) espediente ireki dira lurzoru urbanizaezineko jarduketan interes publikoaren adierazpenerako, Arabako udalek eskatuta.

Plangintzaren Erregistroaren aplikazio informatikoa hobetzeko lanekin jarraitu da, hirigintza dokumentuak elektronikoki bideratzeko eta administrazio espedienteak kautotzeko. Gainera, 2025ean, aplikazioarekin inskripzioak izapidetu dira RAIUn eta, bestalde, idazpen berriak RAPen.

Bestalde, 2025ean, Hirigintzaren Eguna dela-eta, kontakizunen eta marrazkien lehiaketarekin jarraitu da. Zabalkunde kanpaina bat da, hirigintzari balioa emateko eta gure gazteei eta haurrei diziplina hori ezagutarazteko. 15 sari eman dira, 3 kategorია bakoitzean: haurrak, gazteak, marrazkia eta kontakizuna eta bideoa. 317 pertsonak hartu dute parte kategoría horietan (247 marrazkikoan, 65 kontakizunekoan eta 5 bideoan).

Era berean, Azazetako Parke Eolikoaren Plan Berezia, Laminoriako Plan Berezi Fotovoltaikoa eta Eolikoa, eta Vitoria-Solar I Plan Berezi Fotovoltaikoa (Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz) izapidetzen jarraitu da. Gainera, Ubalza (Agurain eta Iruraiz-Gauna), Ubalza II (Agurain eta Iruraiz-Gauna), Vitoria solar 2 (Vitoria-Gasteiz eta Burgelu), Araia (Zalduondo eta Asparrena), Arratzua-Ekibat-Ekibi _ (Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz) eta Katarri eta Ogoritako (Zalduondo, Donemiliaga eta Asparrena) plan berezi fotovoltaikoak izapidetzen hasi dira, bai eta Mendi (Amurrio-Aiara) eta Ferosca I

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO

Programa: 151100 INFORMACIÓN
TERRITORIAL Y FOMENTO
ACCIÓN URBANÍSTICA

acciones de fomento y difusión de la acción urbanística en el Territorio Histórico de Álava.

En lo que respecta al Planeamiento aprobado por la Diputación a lo largo del año 2025 se deben citar las 37 resoluciones forales que se han tramitado para el planeamiento general y pormenorizado. Asimismo se han realizado 30 registros en el Registro General de Planeamiento de la DFA

En cuanto al número de expedientes de declaración de interés público de actuaciones en suelo no urbanizable (SNU) abiertos en el año 2025 han sido treinta y dos (32), con motivo de las solicitudes de los ayuntamientos alaveses.

Se ha continuado con la mejora de la aplicación informática del Registro de Planeamiento para diligenciar electrónicamente los documentos urbanísticos así como autenticar los expedientes administrativos. Además, en el año 2025 se han tramitado con la aplicación las inscripciones en el RAIU y, por otro lado, los nuevos asientos en el RAP.

Por otra parte, se ha continuado en 2025 con el concurso de relatos y dibujo con motivo del Día del Urbanismo. Se trata de una campaña de difusión para poner en valor el urbanismo y dar a conocer a nuestros jóvenes y público infantil esta disciplina, habiéndose concedido 15 premios, tres en cada categoría, infantil y juvenil, dibujo, relato y video. Se ha contado con 317 participaciones en las distintas categorías (247 dibujos, 65 relatos y 5 videos).

También se han continuado la tramitación del Plan Especial del Parque Eólico de Azazeta, el Plan especial fotovoltaico y eólico de Laminoria y el Plan especial fotovoltaico de Vitoria solar 1 (Arratzua-Ubarrundia y Vitoria-Gasteiz). Además, han comenzado su tramitación los Planes Especiales fotovoltaicos de Ubalza (Agurain e Iruraiz-Gauna), Ubalza II (Agurain e Iruraiz-Gauna), Vitoria solar 2 (Vitoria-Gasteiz y Elburgo), Araia (Zalduondo y Asparrena), Arratzua-Ekibat-Ekibi _ (Arratzua-Ubarrundia y Vitoria-Gasteiz) y Katarri e Ogorita (Zalduondo, San Millán y Asparrena); y los planes Especiales eólicos de Mendi (Amurrio-Ayala) y

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA
LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 151100 LURRALDE INFORMAZIOA
ETA HIRIGINTZA
EKINTZAREN SUSTAPENA

(Laudio-Aiara) plan berezi eolikoak ere.

Era berean, Arraia-Maeztuko eta Asparreneko plangintza orokorren aldaketaren izapideekin jarraitu da AFAk sustaturiko foru aparkalekuak jartzeko, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko Natura Ondarearen Zerbitzuak hala eskatuta.

Bestalde, Arabako udalerrietako hirigintza plangintza hiri antolamendurako plan orokorrak idatziz Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legea moldatzeari dagokionez, hirigintza ekintza sustatu da, Arabako udalerrietako hirigintza planak idatzeko aholkularitzaren eta sustapenaren bidez. Hain zuzen, egun, 25 udalerri egokitu dira legera jada; 25 udalerri beren hiri antolamendurako plan orokorra izapidetzen ari dira, eta soilik udalerri bat ez da hasi oraindik hiri antolamendurako plan orokorra idazten.

Hirigintza arloko ebazpenen aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoei dagokienez, letradu zuzendaritza gauzatzen ari da sei gaitan: Arratzua-Ubarrundiako HAPOaren 3. aldaketa, Alegria-Dulantzikiko HAPOa, Laguardiako arau subsidiarioen aldaketa «Barbacana» 2. eremuari dagokionez, Villanañeko (Gaubea) hainbat eremutako HAPBa, Amurrioko eta Aiarako Mendi Parke Eolikoaren PEa eta Murgiko (Zuia) EU-7 HAPBa.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

Ezarritako helburuen eta aurrekontu esleipenen aplikazioaren arabera, programaren betetze maila egokia izan dela esan daiteke, ia % 100ekoa, hala ikuspuntu kualitatibotik nola kuantitatibotik, eta jarraipena eman zaio aurreko ekitaldietan egindako lanari.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO

Programa: 151100 INFORMACIÓN
TERRITORIAL Y FOMENTO
ACCIÓN URBANÍSTICA

Ferosca I (Llodio-Ayala).

Asimismo, se han continuado las tramitaciones, de la Modificación del Planeamiento General de Arraia-Maeztu y la modificación del Planeamiento General de Asparrena para la implantación de aparcamientos forales promovidos por la DFA (a petición del Servicio de Patrimonio Natural del Departamento de Promoción Económica y Sostenibilidad).

Por otra parte, y con respecto a la adaptación del planeamiento urbanístico de los municipios alaveses a la Ley 2/2006, del suelo y urbanismo, mediante la redacción de Planes Generales de Ordenación Urbana, se ha impulsado la acción urbanística a través del asesoramiento y fomento de la redacción de los planes urbanísticos municipales de Álava. De hecho, en la actualidad, 25 municipios ya se han adaptado a la Ley, 25 se encuentran tramitando el Plan General de Ordenación Urbana del municipio y únicamente 1 municipio no ha comenzado la redacción del Plan General de Ordenación Urbana.

En relación con los recursos contencioso-administrativos interpuestos contra resoluciones en materia de urbanismo, se está ejerciendo la dirección letrada en seis asuntos: 3ª modificación del PGOU de Arratzua-Ubarrundia, PGOU de Alegria-Dulantzi, modificación de las NNSS de Laguardia relativa al área 2 "La Barbacana", PEOU de diversos ámbitos en Villanañe (Valdegovía), PE del Parque Eólico Mendi en Amurrio y Ayala, y PEOU UE-7 en Murgia (Zuia).

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

El grado de cumplimiento del programa, de acuerdo con los objetivos establecidos y a tenor de las aplicaciones de las consignaciones presupuestarias, puede ser considerado como satisfactorio, cercano al 100%, tanto desde el punto de vista cuantitativo como cualitativo, continuando con el trabajo llevado en ejercicios anteriores.